



OEEren 33. Osasun Biltzarra Botiketarik haratago

2024 urriak 25
Zornotza-Bizkaia



OSASUNGOA
EUSKALDUNTZEKO
ERAKUNDEA

Abuztuaren 31n amaitzen da epea Osasun Biltzarrean ahozko komunikazioak aurkezteko

Jakingo duzunez, urriaren 25ean Osasun Biltzarra egingo dugu Zornotzako (Bizkaia) Zelaieta Kultur Zentroan. Aurtengo gaia "Botiketarik haratago" izango da. Horren harira, dagoeneko irekita duzu ahozko komunikazioak (hobetsita) eta posterrak aurkezteko epea, abuztuaren 31ra arte.

Bitartean, biltzarra prestatzeko lantaldea osatzen ari gara jada. Gauzak horrela, antolaketan parte hartu nahi duzun guztiok ondoko helbide elektronikora mezua bidaltzea besterik ez duzue: oe@oeequnea.eus

Erantsitako dokumentuetan behin-behineko egitaraua eta komunikazioak aurkezteko jarraibideak dituzu.

[Behin-behineko egitaraua](#)
[Komunikazioetarako jarraibideak](#)



Jubilatzen diren OEEko kideek bazkide-kuotaren erdia ordaindu ahal izango dute

Urtean 30 euro ordaintzen dute OEE-Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeko bazkideak izan nahi duten osasun-arloko profesionalak. Bada, erretiroa hartzen dutenean ere bazkideak izaten jarraitzeko aukera izango dute, kuotaren erdia (urtean 15 euro) ordainduta.

Horretarako, ondoko helbide elektronikora idatziz jakinaraztea baino ez dago: oe@oeequnea.eus



Angel Bidaurrezaga (Medikuntzan doktorea): "Hipokratesetik iatrogenetikaraino"

"Harritu ninduen telefono deiak: Medikuntza fakultateko sailburu ohi batek gonbidapena egin zigun Covid txertoaren kontrako sinatzaile biri, hitzaldi bat emateko UPV/EHUren nagusientzako Esperientzia-geletako ikastaro batean. Lehen aldiz aukera genuen publiko "orokor" bati plandemiaren ikuspegi kritikoa azaltzeko. Nik, behintzat, hitz egiteko aukera bakarrak izan ditut Bizitzak antolatutako ekitaldi bi eta Osaldekoko batzar bat.

Konta dezadan gertatutakoa".

Irakurri Angel Bidaurrezaga Vandierdonck Medikuntzan doktoreak, EHUko irakasle ohiak eta OEEko kideak Independentea.eus atarian idatzitako artikulua osorik [hemen](#).